

Anti-pedagogiaz



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Heziketa esaten zaio, haurren subjektibotasunean esku hartzeko eta beren pentsamendua eta jokabidea zuzentzeko antolatua den forjaketa lanari. Beren izaera nolakoa izan behar den alde aurretik diseinatzea, eta horretarako beharrezkoa den makinaria martxan ezartzeari, alegia. Maila batean ala bestean, forma esplizituago ala inplizituagoan, horixe da heziketa. Eta helburua lortzeko teknika eraginkorrenak ikertzeaz eta asmatzeaz arduratzen den zientzia, pedagogia. Nahitako prozesua da, ongi kalkulatu, ebaluazio eta peritaje zorrotzetara sometitua.

Helduok, erraz ikusten dugu manipulazioa gure pentsamendua edo jokabidea aldaraztea helburu duen edozein botere-praktikatan. Haurrei dagokienean, ordea, sistema oso bat antolatu eta dugu asmo huts horrekin, eta praktika normala iruditzen zaigu gainera hori egitea, hurrengo belaunaldiak zentzatzeta edo kontrolatu nahi izatea gauza erabat naturala balitz bezala. Lotsagabeki, hori egiteko erabateko zilegitasuna aitortu diogu geure buruari, eta galdetu ere ez diogu egiten horretarako eskubidea edo baimena ba ote dugun.

Garai bateko eskolari erraz antzematen zitzaion funtzio hori, agerikoak zi-

tuelako prozedurak, asmoak, moduak. Horregatik, betidanik existitu dira eskola-eredu klasiko horri kritikoak izan zaizkion ahotsak, bai eta eskola beste zerbait izatea nahi luketen hezitzaile borondate onekoak ere. Sistema konbentzionalaren kritika, hezitzaile aurrerakoi guziok konpartitzen dugun abiapuntu erraza da. Eztabaida, baina, egungo eskola ustez erreformatuaren ingurukoa da. Benetan den ala ez oso bestelako zerbait, ala egungo denboretara egokitzeko instituzioak behar zuen aldaketa kosmetikoa baino izan ez ote den.

Ez dezagun ahantz, gizarte okzidentalaren ezaugarria da autoritarismoa ezkutatatu nahi izatea, hiritarrak azpiratzeko prozedurak ikusezin bilakatu eta dominazio-teknologia psikiko eta sinbolikoagoaren bitartez eskuratu nahi izatea jendearen gaineko kontrola. Biolentzia esplizitua eta erabili behar izan gabe erdietsi ahal izateko helburuak, ageriko boterekeriarik gabe. Eskola instituzioari buruz ari garelarik, eskolaren pedagogia inplizitua osatzen duten elementuen erreformaren bitartez lortu du eskolak itxuraldaketa. Denak bere horretan segi dezala, baina dena erabat aldatu delako itxura emanez.

Ezagutzen dugun heziketa-eredua errotik aldatu nahi baldin badugu, heziketatik bereiz ezinak diruditen dogma batzuk auzitan jartzen hasi beharoko dugu. Hasteko, eta adibidez, zuzendu beharreko hutsak dituztela haurrek. Huts horiek zein diren erabakitze eta zuzentzeko gaitasuna duen talde berezitu bat dagoela, hezitzaile eta pedagogoona alegia; eta horiei baino ez dagokiela heziketa. Beharrezkoa dela haurrak komunitate naturaletik ateratzea, eta konfinamendu moduko itxialdian edukitzea. Heziketak derrigorrezkoa behar duela. Prozesuaren ebaluaketa zorrozki egin behar dela. Noski, haurren hobe beharrez ari gara.

Egungo eskolak ongi definitu ditu irakasle on eta ikasle on-aren perfilak. Eskolaren kontrako gorroto handirik sorrarazi gabe, eskolaren helburu klasikoak –otzantzea, autoritate eta jerarkia printzipioak igortzea– lortzen dituen jotzen da irakasle ontzat. Ikasle ona, sisteman aktiboki parte hartzeko duen margen tipiaren bidez kritikotasuna agerturik ere, sistemaren ontasuna funtsean onartzen duen hori. Egungo gizartearekin antza handiegia duelako hartzen diot susmo txarra oraingo eskola erreformatuari. Zuek ez? ●